

AITA AGUSTIN

KARDABERAZ

Bidezkoa da, geure historian zehar izan ditugun gizon ospetsuak ezagutzea; eta aipatzeko, noiz sasoi egokiagorik haien urtebetetzeak direla-ta baino? Izan ere, egun hauetan berrehun urte datoz Aita Agustin Kardaberaz hil zenetik, atzerrian, Italian, Castel San Giovanni deritzan Bolonia inguruko herririk batean.

Hernanin jaioa zen, 1703. urtean, abenduaren 29-an. Bere lehenengo ikasketak, gramatika, filosofia eta legeak, Donostia, Iruñe eta Valladoliden egin zituen. Ondoren, 18 urte kunplitu aurretik, apaiztegia sartu zen, eta zortzi urteren barruan apaiztu zitzaigun. Bilbo eta Oñatin irakasle urte batzuk egon eta gero, Loiolan bizi izan zen luzaro.

Loiolan zegoela hasi zen herriz herri sermolari bezala misiotan. Bizkai eta Gipuzkoako herrietan batez ere. Jendetza haundia bildu* ohi zen berari entzuteko. Hizlari trebe, euskaldun sutsu eta apaiz sandutzat zuen herriak. Jesusen Bihotzarekiko debozioa sorrarazi zuenarikoa dugu Aita Agustin.

1744. urtean haren lehenengo liburua argitaratu zen, Hego Euskal Herrian argitaratzen zen liburu haundi samar lehenengoetakoa hain zuzen: "Kristauaren Bizitza edo horretarako bide erraza bere hamabi pausoekin" izenarekin Aita Dutariren lana euskeratuz. Ez zen izan berau haren lan bakarra; aitzitik,* beste hamalau liburuxoren egile dugu, bizkaieraz bi ezik beste guztiak gipuzkeraz idatziak.

Aita Kardaberazek zerabiltzan gaiak eta idazkerek ez dute beharbada balio handirik literaturaren aldetik; hala ere, idazle guti izan da Kardaberaz bezain irkurria, eta haren zenbait* lanek argitarapen bat baino gehiago ezagutu du. Haren idaztandak bizia, zuzena, zailtasunik gabea da. Ez zen ezertxo ere garbizale; noiznahi jartzen zituen badaezpadako erdal hitzak, irakurleari ulerterrazago izan zekion. Funtsean dotrina irakastea zen haren helburua,* literatura egitea baino lehenago behintzat. Hala ere, ezin uka, haren erdakeriak eta guzti, euskaldun sena nagusi dela haren lan ugarietan.

Diogunez, Aita Kardaberazek erlijio gaiak erabili ohi zituen sarrien, haren misiotako hitzaldien jarraipena bailiren, kristau bidearen ikasgai bezala. Erlijioz kanpo liburu bat bakarrik prestatu zuen, hau da, "Euskararen Berri Onak, eta ondo eskribitzeko, ondo irakurtzeko eta ondo itzegiteko Erregelak". Titulo beretik jakin dezakegunez, gramatikazko erregelak ezezik, euskeraren zenbait* berri ematen dauku, guztiak horren onak ez badira ere.

Bizkaian nahiz Gipuzkoan hizkuntzaren arauak* herriak zein ondo gordetzen dituen ikusteak arras* harritzen du Aita Kardaberaz. Nafarroa eta mugaz handiko berriren bat aipatzen du, baita Arabako euskeraren egoera larria azaldu ere. Euskera hizkuntza garbitzat jotzen du, eta honetaz erabat* Axular eta Joanes Etxeberriekin dator bat. Hauen iritziz, euskerak ez omen* du nahasterik, ezer guti baino, inguruko hizkuntzekin; eta gaur egun euskera apala eta txiroa badugu ere, ez da euskera beragatik euskaldunengatik baino, ez baikara* behar beste arduratzen.

1767. urtean, Karlos III. erregearen aginduz, Jesuitak Espainiatik bidaliak izan zirenez gero, Aita Kardaberaz Italiara eramana* izan zen eta hantxe hil zen, hiru urteren buruan, urriaren 18-an, goizeko zortziretan, sandu bat balitz bezala. 127 urte ber anduago, jesuiten eta Hernaniko Udalaren ahaleginez, Aita Kardaberaz gorpuzta euskalerriratu zen eta Loiolan datza 1908-tik.

Azkenik, amaitzeko, haren ohorez eta oroikarri aipa ditza-gun esanak zituen hitz ospetsu hauk: "Baña gure Pabretxo on askoren animak salbatzeko, Euskarak burua jasotzea Jainkoak nahi du; gure Baserrietan jende prestuak dirauten artean, Euskarak iraungo du. Esan ohi dana: hoiei lepoa ebaki edo bizia kendu gabe, Euskara ezin utzi edo kendu diteke".